




2019. urtean heldu da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna administrazio elektronikora

Bost establezimendutik lauk modu elektronikoa egiten dituzte izapideak foru-aldundiekin

e-Administrazioa lehen sektorean
e-Administrazioa administrazio publikoetan
e-Administrazioa eta pertsonak

e-Administrazioa enpresetan

G.1. Euskal Autonomia Erkidegoan azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. 2000-2018.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko hamar establezimendutik bederatzik baino gehiagok —% 93, eta guztira 152.078— (lehen sektorekoak, etxe-zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak kontuan hartu gabe) erabili zuten administrazio elektronikoa 2018. urtean¹, zuzenean nahiz hirugarrenen bitartez². 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen kasuan, berriz, % 95,7k, Eustateko datuen arabera. Erabilera edo elkarrekintza askotarikoa izan da: informazioa eskuratzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedurak edo izapideak oso-osorik teleizapidetzera.

¹ Administrazio Elektronikoa erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.

² 2016ko bilketan, izapideak eta prozedurak egin edo informazioa jaso euren zuzenean egiten zituzten establezimenduez gainera, ekintza horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten establezimenduak ere jaso ziren. 2017koan (2016ko emaitzak), Internet eduki gabe administrazio elektronikoa erabiltzen dutenak sartu ziren.


Azken 18 urteetan jasotako datuen arabera, bi aldi bereiz daitezke: 2000tik 2008ra bitartean, administrazio elektronikoaren erabilera izugarri hazi zen enpresetan —bider zortzi baino zerbait gehiago—, bitartean, errolda ere 31.509 unitatetik gora hazi zen. 2009 eta 2013 bitartean, krisi ekonomikoan murgildurik, aurreko aldiko saldo positiboaren parte handi bat galdu zen (30.123), eta mantsotu egin zen Administrazioarekin harremana Internet bidez egiten zutenen hazkundera: azken bost urte horietan hazkundera % 7,3koa izan zen. 2013tik 2014ra 3.410 establezimendu gehiago izan ziren administrazio elektronikoaren erabiltzaile; hau da, urte arteko % 3,8ko hazkundera egon zen.

2015eko datuek haustura erakusten dute 2000-2014 seriearekin alderatuta: 25.355 establezimendu gehiago sartu dira (% 27,1 gehiago), metodologia-aldaketarengatik neurri handi batean. 2016an, beste 26.173 batu ziren, % 22 gehiago, ia erdia, administrazio elektronikoa erabili arren Interneteko konexiorik ez daukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotutako metodologia-aldaketarengatik (guztira 14.727, hamar establezimendutik bat). Beraz, metodologia-jauzia baztertuta, hazkundera nabarmena izango litzateke, % 9,6koa.

2016tik 2017ra, hazkundera % 3,5ekoa izan zen (5.097 establezimendu gehiago).

2017tik 2018ra, % 1,3 establezimendu gehiago (2.024) hasi zen administrazio elektronikoa erabiltzen. Kopuru hori 2012. urteko datutatik hurbil dago (aipatu aldaketa metodologikoak kontuan hartu gabe). 2013. urtetik aurrera, guztira 165.000 establezimendu inguruk erabili dute, gorabehera (galera) gutxi batzuekin; beraz, administrazio elektronikoaren erabilerak izan duen hazkundera garbia da.

G.11 Internet duten establezimenduak, administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. %




Administrazio publikoekin harremanetan jartzeko beste erakunde batzuen laguntza behar izan duten establezimenduen ehunekoak honako hauek izan dira: 2016. urtean % 78,3; 2017. urtean % 71,5, eta 2018. urtean % 73,4. Agian e-Administraziorako sarrera berrien ondorioz gertatu da gorakada txiki hori.

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen kasuan, kopuru hori ez da askorik aldatzen: 2017. urtean % 52,9 eta 2018. urtean % 55,8.

Kontuan izan behar da enpresek eta haien establezimenduek zuzenean egin ditzaketela administrazio-kudeaketa batzuk, eta, aldi berean, hirugarren batzuegana jo dezaketela beste kudeaketa batzuk egiteko: 10 enplegu edo gehiago dituztenen % 80,6k ere eurek egiten dituzte izapideak zuzenean. Ziurrenik, erakunde horiek aro digitala baino lehenago hirugarrenen bitartez egiten zituzten kudeaketak oraindik ere elektronikoki egiten dituzte, establezimenduaren tamaina eta ahalmen informatikoak edozein izanda ere.


Establezimenduen eroldaren saldoa nahiko egonkorra izan da azken urteetan; horregatik badirudi administrazio elektronikoaren erabileraren hazkundean garrantzi handia izan dutela aipatutako metodologia-aldaketek, baita administrazio publikoen eta sektore ekonomikoen arteko Internet bidezko harremanen bilakaera positiboak ere.

G.2 . Establezimendu kopuruaren eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2018. Δ%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa


G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

2015 eta 2018 urteen artean gora egin zuen administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen kopuruak, neurri handi batean Internet nahitaez eduki gabe kudeaketak hirugarren batek egiten dituela erantzuteko aukera sartzeagatik; horrenbestez, jasota izapide mota guztiek pixka bat gora egin dute.

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Administrazio elektronikoaren sofistikazio-mailari dagokionez, establezimenduen % 55,2k prozedura elektronikoa erabat izapidetzea lortu dute; eta ehuneko hori 2017an baino 4,9 puntu portzental altuagoa izan da. Gogoratu behar da 2011 eta 2017 urteen artean bikoiztu egin zela ehuneko hori, 7 urteko tartean.

Betetako inprimakiak administrazioei elektronikoki itzultzeko aukerak ere pixka bat gora egin zuten 2017 eta 2018 urteen artean; alegia, establezimenduen % 55,4tik % 57,5era pasatu zen kopuru hori.

Gizarte-kotizazioen aitortpenak 3,6 puntu portzental egin zuen gora – establezimenduen % 61,1era iritsiz–; eta BEZaren aitortpenak 1,1 puntu egin zuen gora –2018an guttizkoaren % 74,4–, eta sozietateen gaineko zergaren aitortpenak % 57 inguruan jarraitu zuen.

Toki-erakundeak, Eusko Jaurlaritza ³eta Europar Batasuna dira azken urtean administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduetan gehien hazi diren erakundeak: % 10,9 toki-erakundeak eta % 10,4 beste biak.

Aldundiak oraindik ere erakundeen rankingaren buruan egon dira (% 84,1), eta haien atzean Administrazio Zentrala (% 72,3) eta Eusko Jaurlaritza (% 54,2) daude. Kontuan hartu behar da establezimendu guztiak ez daudela behartuta administrazio guztiekin izapideak egitera eta, kasu batzuetan, enpresa bereko beste establezimendu batzuek egiten dituztela izapideak.

³ Eusko Jaurlaritzan sartzen dira haren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, enpresa-sektore publikoa, partzuergoak, fundazioak eta abar.


TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2018. %

	Guztira										Eusko Jaurlaritza										Foru aidundiak									
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018						
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	47,2	50,3	54,5	57,0	71,8	87,8	91,0	93,0	34,3	33,3	36,2	36,5	38,7	41,8	48,7	54,2	39,4	43,4	45,1	46,8	64,8	73,4	83,5	84,1						
Informazioa lortzeko	41,7	43,8	44,3	46,5	52,2	58,0	66,5	70,0	30,8	31,0	32,9	33,2	31,3	37,0	41,2	42,6	32,1	35,5	36,7	37,7	43,2	47,2	50,9	55,7						
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	39,3	40,7	42,5	44,7	53,2	57,1	65,1	67,4	24,9	26,1	27,5	27,9	29,5	33,6	36,7	36,7	30,1	33,1	35,5	35,5	43,2	46,3	51,4	54,9						
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	32,0	33,9	31,3	33,7	42,7	45,3	55,4	57,5	19,4	19,9	19,8	20,3	22,3	23,8	29,8	30,8	24,3	27,2	26,0	26,2	34,8	35,8	42,1	46,5						
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	25,3	22,5	20,3	23,5	36,4	37,3	50,3	55,2	13,6	11,8	11,2	12,6	16,7	18,7	25,2	31,8	18,0	16,5	14,4	16,6	27,6	26,8	36,4	39,3						
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	6,0	5,6	5,2	5,3	10,0	9,8	15,8	17,3	3,2	2,8	2,9	2,9	4,4	4,5	7,3	8,0	3,1	3,5	3,0	3,1	6,5	5,5	8,7	9,3						
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	17,3	27,1	28,4	28,2	44,2	56,7	57,5	61,1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-						
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	21,3	30,6	29,5	30,2	45,4	62,9	57,1	56,9	-	-	-	-	-	-	-	-	18,7	26,2	25,2	25,5	40,3	50,3	49,3	50,0						
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	25,1	34,4	34,7	34,2	55,0	72,8	73,3	74,4	-	-	-	-	-	-	-	-	22,3	29,6	28,2	28,7	51,0	58,4	67,7	67,9						
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,4	4,6	4,9	5,4	9,3	9,2	11,6	12,7	-	-	-	-	-	-	-	-	0,9	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0						
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,8	1,7	2,9	6,1	7,5	10,3	0,6	0,4	0,4	0,4	0,8	0,6	3,0	1,3	0,9	1,2	0,9	1,0	1,6	4,6	3,6	7,0						


TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2018. % (Jarraip.)

	Toki-erakundeak										Administrazio Zentrala										Europar Batasuna eta beste batzuk									
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018						
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	20,1	21,6	22,3	21,7	21,0	27,5	26,5	29,7	28,6	35,9	39,6	39,2	51,7	67,9	67,6	72,3	6,0	5,1	4,9	6,2	7,4	7,2	8,8	9,8						
Informazioa lortzeko	17,7	20,0	20,7	20,3	18,2	24,7	22,6	25,8	18,9	17,3	21,2	22,4	20,6	24,4	22,8	25,8	5,2	4,4	4,0	4,7	5,7	5,6	6,9	7,0						
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	13,1	15,6	15,8	15,8	14,3	21,0	18,0	20,3	15,4	13,5	17,2	18,3	17,4	21,5	19,6	20,5	3,3	2,4	2,6	3,5	3,2	3,5	4,3	4,6						
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	8,1	10,0	8,9	9,3	10,2	12,7	13,7	15,8	12,2	10,9	13,2	14,2	14,3	17,2	16,5	18,5	2,3	1,8	1,9	2,7	2,0	2,8	3,2	3,4						
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	5,7	4,9	4,5	4,9	6,9	8,8	9,8	11,4	9,5	8,1	8,0	9,5	12,2	13,1	14,7	16,5	1,7	1,5	1,5	1,7	1,7	2,0	2,6	2,9						
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,6	1,6	1,5	1,5	1,7	1,6	2,3	3,0	2,5	1,8	2,5	2,4	3,0	3,2	4,6	5,4	0,5	0,4	0,8	0,8	0,9	1,0	1,2	1,1						
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	-	-	-	-	-	-	-	-	17,0	26,8	28,1	27,8	43,3	56,1	56,9	60,3	0,5	0,4	0,3	0,5	1,2	0,9	0,7	0,9						
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	-	-	-	-	-	-	-	-	4,7	7,0	11,0	11,1	9,5	17,1	11,7	11,6	0,3	0,1	0,0	0,0	0,4	0,5	0,3	0,2						
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	-	-	-	-	-	-	-	-	5,6	7,2	13,1	11,5	9,5	18,1	10,2	13,0	0,2	0,1	0,0	0,4	0,5	0,7	0,3	0,6						
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	-	-	-	-	-	-	-	-	4,4	4,5	4,7	5,2	9,1	8,8	11,1	12,1	0,2	0,1	0,5	0,5	0,5	0,8	0,7	0,7						
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,2	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,7	0,8	0,4	0,6	0,5	0,6	1,0	1,1	1,3	2,3	0,0	0,0	0,2	0,1	0,1	0,3	0,3	0,5						

G.4.1.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2018.%



G.4.1.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen joera ekonomikoa aldatzen ari da: sei urtean establezimendu kopuruak behera egin zuen (2009 eta 2015 bitartean 1.991 enpresa gutxiago izan ziren –sorreren eta suntsipenen arteko diferentzia-), 2015etik 2016ra bitartean joera alderantzizko bilakatu zen eta hazkunde garbia 157 unitatekoa izan zen, % 1,3, eta, azkenik, 2016. eta 2017 bitartean hazkundera handiagoa izan zen –% 3,6koa eta 445 unitatekoa–. Hobekuntza hori administrazio elektronikoaren erabileragatik izan zen: kolektibo horretan % 6,6k gehiagok erabili zuen 2015-2016 aldian, eta % 5,1ek gehiagok 2016tik 2017ra.


2017tik 2018ra, 309 unitate gehiago izan ziren; beraz, hazkundera % 2,4koa izan zen.

Foru-aldundiak 10 enplegu edo gehiago dituztenen estratuari dagokionez ere daude Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen rankingaren buruan, % 85,1ekin; baina 2017. urtearekin alderatuta portzentaje-puntu bat galdu zuen. Ondoren Administrazio Zentrala dator: % 86,4 eta 1,1 puntu portzentual gehiago. Lau establezimendutatik hiru (% 76,3) daude harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin, hazkundera puntu portzentual batekoa izanik.

Europar Batasuneko partaidetza puntu portzentual 1 jaitsi zen, 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen % 21,9ra iritsiz.

Toki-erakundeek, establezimenduen kopuru osoan ikusi denez, estratu horretan hobera egin zuten; 2,2 puntu portzentual eta erabiltzaileen % 48 gehiago.

G.4.2. Establezimenduak, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokak, eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena, administrazio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2018. Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

e-Administrazioa lehen sektorean

Lehen sektoreko bost establezimendutik lauk bide elektronikoa erabiltzen dute administrazio publikoekin harremanetan jartzeko, eta 10 enplegu edo gehiagoko estratuan hamar establezimendutik bederatzik aukeratu zuten bide hori 2018. urtean⁴

2012an administrazio elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2. Igoera hori hainbat faktorek azaltzen dute.

Lehenengoz, aztertu nahi den biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustiategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jarduera nagusi zutenak soilik ardatz hartuta.

Aldaketa horri zati batean lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan Interneten garrantzia 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

2015etik 2018ra hazkundera nabarmena izan zen: % 35,2tik % 85,1era igaro zen establezimendu guztietan, eta % 78,8tik % 98,5era 10 enplegu edo gehiago dituztenetan.

Aipatutako gehikuntzak justifikatzeko azalpen batzuk dira: administrazio publikoek zenbait prozedura eta izapidetan izapideak nahitaez online egin beharra, eta hirugarrenen izapidetzea eta bitartekaritza errazten duten APPen garapena. Gainera, 2018an e-Administrazioaren erabiltzailetzat jotzen dira internautak ez direnak (hirugarrenen bidez dabiltzanak), eta hori ez zen gertatu 2015ean.⁵


Zehazki, 2015. urtean, % 76,8 hirugarren pertsonen edo entitateen bidez sartzen zen administrazio elektronikora; 2018. urtean kopuru hori % 90,4raino igo zen.

Bestalde, izapideak zuzenean egiten dituztenen kopurua murriztu egin zen: 2015. urtean % 47,7 eta 2018an % 40,9.

⁴ *Administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jaso zen urtea, urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi aldaketa metodologikogatik: 2015etik aurrera, jarduera nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jarduera hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarren bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.*

⁵ *2016ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2015), ez zitzaien administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko galderarik egin Internetera astean gutxienez behin konektatu ez ziren pertsonen. 2019ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2018) ez zen beharrezkoa Internetera konektatzea e-Administrazioaren erabiltzaile gisa hartzeko.*


G.5.1 Lehen sektoreko establezimenduak administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak, 2018an, 135 ustiategi osatutako klub murriztua ziren; 10 kasutik ia 9tan (% 88,7) kontratatutako erakundeak baliatzen zituzten beren administrazio izapideak egiteko; 2015ean baino 4,4 puntu portzentual gehiago. Egoera hori gertatzen da ustiategi ertain eta handi horiek konplexuagoak direlako eta administrazioekiko harreman-bolumen handiagoa dutelako.

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2018.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

2018an, lehen sektorea batez ere foru-administrazioarekin jarri da harremanetan bide elektronikoa erabiliz: ia 5 establezimendutik 4 (% 80,4). Beste aukerak dira, Eusko Jaurlaritza (% 41,3) eta Administrazio Zentrala (% 32,8). Sektore horretan, alabaina, administrazio elektronikoaren bidez harremanak edukitzeko azken aukerak toki-administrazioa (% 7,6) eta Europar Batasuna (% 3,1) izan ziren.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, ikusten da 10etik 9k izapide elektronikoak proportzio berean egiten dituztela foru-administrazioekin eta Administrazio Zentralarekin; % 68,1ek autonomia-erkidegokoarekin eta % 25,9k toki-administrazioarekin.

G.5.3.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012- 2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

G.5.3.b Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012-2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Alde batetik, azpimarratu behar da lehen sektoreko establezimenduen arteko distantziak nabarmen egin duela behera administrazio publikoekin harremanetan jartzeari dagokionez, eta gainerako sektore ekonomikoekin alderatuta: 2018. urtean beste sektore ekonomikoen % 93k hartu zuten bide hori eta lehen sektorekoen % 85,1ek. Hiru urte lehenago, establezimendu guztiak % 87,8 ziren, eta lehen sektorekoak % 35,2.⁶

TAU 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. %

	Establezimenduak. Guztira						10 lanpostu edo gehiagokoak					
	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	85,1	41,3	80,4	7,6	32,8	3,1	98,5	68,1	93,3	25,9	92,6	5,2
Informazioa lortzeko	48,3	30,0	41,9	6,3	6,2	2,3	77,0	60,0	57,8	18,5	34,1	4,4
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	46,5	23,6	41,5	3,2	4,1	1,5	71,9	48,9	54,8	16,3	23,0	3,7
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	38,4	13,6	33,8	3,0	3,5	0,7	68,9	44,4	49,6	17,0	20,0	2,2
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	40,8	7,8	36,5	1,9	3,6	1,0	67,4	37,0	45,9	8,9	23,0	0,7
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	2,1	0,7	1,7	0,3	0,2	-	17,0	8,1	13,3	3,7	1,5	0,7
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	29,5	-	-	-	29,4	0,4	87,4	-	-	-	87,4	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	10,5	-	9,7	-	0,9	0,1	68,9	-	60,0	-	11,1	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	32,0	-	31,2	-	0,7	0,3	86,7	-	79,3	-	8,9	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	1,4	-	-	-	1,1	0,3	14,8	-	-	-	14,8	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	33,0	0,8	32,3	0,0	0,2	0,0	19,3	3,7	16,3	-	1,5	-


% 29,5ek Gizarte Segurantzako kotizazioak aitortzen dituzte –2015ean baino 9,4 puntu portzentual gehiago–, eta % 32k BEZa kudeatzen dute –14,1 puntu portzentual gehiago–. Gainerako sektore ekonomikoetan % 65,8ra eta % 80ra heldu ziren, hurrenez hurren.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustiategien egoera oso bestelakoa da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta; ekonomiaren beste esparru batzuetara hurbiltzen da. Izan ere, 2018an, lehen sektoreko establezimenduen % 98,5ek erabiltzen zuten administrazio elektronikoa, baita gainerako sektore ekonomikoen % 95,7k ere.

Gizarte-kotizazioetan eta BEZaren aitortzean, 10 enplegu edo gehiagoko lehen sektorearen estratua zazpi portzentaje-puntu handiagoa izan zen gainerako sektoreetako estratu berarekin alderatuta. Ez da gauza bera gertatzen sozietateen gaineko zergarekin: gainerako sektoreen 6,6 puntu portzentual gehiagok erabili zuten administrazio elektronikoa, lehen sektorearekin alderatuta. Eta prozedura oso bat izapidetzean 8,5 puntu gehiagok erabili zuten.

⁶ Ikusi 5. oharra

G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS



e-Administrazioa eta administrazio publikoak

Toki-erakundeen e-Administrazioaren erabilerak % 25 egin du gora

2016an egin zen lehen informazio-bilketa. Laginketa berezia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietako establezimenduentzat⁷.

IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen. Gogoratu behar da enpresei zuzenduta dagoen Informazioaren gizarteari buruzko inkestarako erabiltzen den galdetegi bera erabiltzen dela, eta bilketa aldi berean egiten dela.

2018an, administrazio publikoen establezimenduak 4.124 ziren –horietatik 2.022 establezimendu 10 langile eta gehiagoko estratukoak ziren–. Laginketa egin eta 900i egin zitzaien inkesta.

2018an, hamar establezimendutik bederatzik (% 92,1) izapide edo kontsultaren bat egin zuten Interneten, administrazio publikoen atarietan, eta 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak hurbil geratu ziren (% 95,2).

Establezimendu publikoen % 82,9k izapidetzen dute edo informazioa bilatzen dute Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoarekin; ondoren, Administrazio Zentralarekin (% 69,3), foru-aldundiekin (% 63), toki-erakundeekin (% 60,4) eta Europar Batasunarekin (% 34,1). Eskema hori, aldaketa txiki batzuekin, 10 enplegu eta gehiagoko establezimenduekin errepikatzen da.

2017tik 2018ra bitartean izandako hazkunderik nabarmenena toki-erakundeen e-Administrazioan gertatu da: % 24,8 igo da erabilera establezimendu publiko guztien artean, eta % 12,9 igo da 10 enplegu eta gehiagokoen artean.


Administrazio elektronikoak, guztira, % 8,7ko hazkundera izan zuen estratu horretan; Eusko Jaurlaritzaren eskaintza (% 9,2) zertxobait handiagoa izan zen, eta foru-aldundien hazkundera (% 7,1) zertxobait txikiagoa. Administrazio Zentralak % 12ko igoera jaso du, eta Europar Batasunak eta beste batzuek % 2,8ko jaitsiera.

⁷ Eustat. Fitxa metodologikoa.

https://eu.eustat.eus/document/esia_e.html


- Administrazio Zentra
- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- Udalak
- Mankomunitateak eta partzuergoak
- Udalerrien elkarteak eta kuadrillak
- Toki-erakunde txikiagoak
- Erakunde autonomiadunak
- Beste entitate publiko batzuk (Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua)
- Sozietate kapitalaren gehiengoaren administrazio publikoarena duten merkataritza-sozietateak
- Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea
- Etxeen zerbitzura lan egiten duten eta irabazi asmorik ez duten fundazioak eta erakundeak, administrazio publikoak baldin badu partaidetzaren gehiengoak.

G.21.a Administrazio Publikoko establezimenduak, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena, administrazio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017-2018. Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa


G.25 Administrazio Publikoen establezimenduek administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS


Administrazio publikoetako establezimenduak gainerako establezimenduekin alderatuta bereizten dituen elementuetako bat honako hau da: hirugarren pertsonak edo erakundeak gutxiago erabiltzen direla administrazio elektronikoa kudeatzeko. Soilik bost establezimendutik batek (% 19,1) behar du hirugarren bat horretarako. 2018. urteko datuak aintzat hartuta, lehen sektorean kopuru hori % 90,4koa zen eta gainerako sektoreetan % 73,4koa.

G.22.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

G.22.b. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

E-Administrazioaren eskaintzari dagokionez, establezimendu publikoek gehien erabili zituzten elementuak honako hauek izan ziren: informazioa bilatzea (% 89), inprimakiak deskargatzea (% 82,6), betetako inprimakiak itzultzea (% 78,7), prozedura bat osorik izapidetzea (% 69,9) eta gizarte-kotizazioen aitortpena (% 50,1).

Aurreko urtearekin alderatuta (2017), gora egin zuten prozedura baten teleizapidetze osoak (8,4 puntu portzentual) eta proposamenak lizitazio elektronikoko sistema batean aurkezteak (9,1 puntu portzentual).

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2018. %

	Guztira			Eusko Jaurlaritza			Foru aldundiak			Toki-erakundeak			Administrazio Zentrala			Europar Batasuna eta beste batzuk		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	87,7	92,8	92,1	76,3	83,1	82,9	57,1	64,4	63,0	42,3	53,0	60,4	61,9	67,8	69,3	29,2	38,4	34,1
Informazioa lortzeko	82,2	89,4	89,0	72,2	79,3	78,0	50,9	57,9	56,7	39,9	49,0	54,9	46,4	55,3	53,9	24,9	31,5	26,9
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	79,2	85,8	82,6	67,4	74,5	73,0	49,2	54,5	52,5	30,9	36,9	41,6	41,7	47,2	44,9	19,5	25,4	24,6
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	77,9	79,3	78,7	66,3	67,2	69,9	45,1	47,8	48,9	25,3	29,3	35,0	36,5	42,4	42,6	15,7	20,5	19,9
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	64,9	61,5	69,9	50,2	51,5	59,5	30,8	34,7	37,9	12,9	16,9	20,5	29,1	32,7	34,7	8,8	14,8	16,2
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	14,0	10,8	19,8	10,0	7,1	12,7	3,6	3,7	6,8	1,0	1,3	4,8	3,4	3,1	9,0	1,8	1,1	4,6
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	43,3	50,3	50,1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	42,3	48,4	49,9	1,4	1,9	0,2
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	23,8	24,8	27,2	-	-	-	20,8	22,7	24,0	-	-	-	3,4	2,1	3,6	0,2	0,0	0,0
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	29,4	29,2	32,4	-	-	-	26,6	28,1	28,5	-	-	-	3,2	1,5	4,1	0,2	0,0	0,1
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,3	4,9	6,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	5,1	4,6	6,8	0,2	0,2	0,0
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	6,5	8,6	7,7	2,2	5,6	4,2	2,9	2,9	3,5	0,1	0,0	2,7	3,0	4,0	3,8	0,5	0,3	0,6

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

Izapidetzen ari diren administrazioekiko erabileren aldaketak aztertuz gero, 2017 eta 2018 urteen artean ikusten da Eusko Jaurlaritzan 8 puntu portzentual igoera izan dela prozedura baten teleizapidetze osoan, eta 5,6 puntu portzentual lizitazio elektronikoa. Foru-aldundietan ere egin zuten gora erabilera horiek, neurri txikiagoan izan arren: 3,1 portzentaje-puntu, bi kasu horietan.

Toki-erakundeetan gora egin zuten administrazio-trafikoari lotutako eragiketa hauek: informazioa bilatzea (5,8 puntu portzentual), inprimakiak deskargatzea (4,8 puntu) eta inprimakiak beteta itzultzea (5,7 puntu). Bestalde, 3,5 puntu portzentual handitu da prozedura baten izapidetze osoa eta lizitazio elektronikoko sistemen izapidetzea.

Lizitazio elektronikoa (proposamenak aurkeztea), EAEko administrazio publikoetako establezimenduek 6 puntu portzentual igo dituzte Administrazio Zentralarekin dituzten harreman elektronikoa, 2017 eta 2018 urteen artean.


Antzeko zerbait gertatzen da Europar Batasunarekin, neurri txikiagoan bada ere: 3,5 puntuko igoera jaso da *e-procurementen* proposamenetan.



e-Administrazioa eta pertsonak

2019. urtean heldu da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna administrazio elektronikora

Azken 12 hilabeteetan (2018ko lehen hiruhilekoa eta 2019 bitartean), ⁸ EAEn bizi ziren 16 urtetik 74 urtera bitarteko 752.600 pertsonak erabili zituzten administrazioek herritarrekin harremanak izateko eskaintzen dituzten aukerak, guztien % 46,7k, alegia.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

2005az geroztik, administrazio elektronikoaren erabiltzaileen kopurua internauten kopurua baino gehiago hazi da. Joera hori 2010 eta 2011 bitartean hautsi zen, erabiltzaileen kopurua % 2 soilik igo baitzen, eta internautena, aldiz, % 8,4. 2011 eta 2012 bitartean, hazkundera internauten % 1,7ra murriztu zen, hots, 2003az geroztik gehikuntza txikiena izan zen. Gertaera horrek, krisi-egoerarekin batera, hein batean azaldu dezake zergatik jaitsi zen % 4,3 administrazio publikoekin harremanetan jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua.

2014 eta 2015 bitartean, internauten kopuruak gora egin zuen —80.000 gehiago—, eta, horrekin batera, e-Administrazioaren erabiltzaileen kopurua % 18,6 hazi zen.

2016an eta 2017an, aldiz, erabiltzaileen kopurua jaitsi egin zen, baina laginen aldaketa metodologikoen ondorioz; beraz, ez da aintzat hartu behar.


⁸ 2003tik 2008ra bitartean, IGIFek urteko 2. eta 4. hiruhilekoetan jasotzen zuen informazioa; beraz, administrazio elektronikoaren erabilerari emandako erantzunerako erreferentziako hiruhilekoa inkesta egiten zen urtean sartzen zen (azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen da). 2009tik aurrera, informazioa urteko lehen hiruhilekoan jaso da; hortaz, erabileraren erreferentzia-aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Inkesta egin zen urtea kasu guztietan adierazten da. 2015ean, bilketa-aldia urtearen lehen erdi osora zabaldu zen; horrenbestez, azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen denez, denbora-erreferentzia 2014ko 4. hiruhilekotik 2015eko 1. hiruhilekora bitartekoa da. 2016az geroztik, administrazio elektronikoaren erabileraz galdetzeko aldia azken hamabi hilabeteak dira.

Aintzat hartu behar da azken hiru hilabeteetan Interneten sartu diren pertsonen galdetzen zaiela administrazio elektronikoaz.

Bilakaera desitxuratu horrek ez du galarazten «Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak » biltzen dituen ezaugarri batzuen joerak eta banaketak analizatzea.


2018tik 2019ra bitartean, e-Administrazioko zifra absolutuen hazkundera 34.600 erabiltzailekoa izan zen, % 2,1 gehiago. Internauten kopurua % 2,1 igo zen, eta administrazio elektronikoen erabiltzaileena, berriz, % 4,8.

G.7 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2019. %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak – IGIF

G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2019. Δ%



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Sexua kontuan hartuta, eta administrazio elektronikoa erabiltzen dutenen guztizko kopurutik gizonen eta emakumeen ehunekoen diferentzia kalkulatu bada, gorabehera biziak izan diren aldiak ikusi arren —2006 eta 2013 bitartean—, arrail hori txikiagotzeko joera motel eta argia igartzen da. Azken urte horretatik aurrera, internauten eta erabiltzaileen genero-arrailak murrizteko joera argia erakutsi dute.

2003an, internauten arraila 6,2 puntu negatibora heldu zen, eta 2018an -2,5ean geratu da. Zenbatespen lineala erabiliz gero, hau da, ausazko aldakuntzak alde batera utzita markatzen bada joera, 2003ko 6,2 puntu negatiboetatik ia 3 puntu negatibotara pasatu zen.


Azpitarratu behar da internauten artean arrail handiagoa dagoela administrazio elektronikokoaren erabiltzaileen artean baino. Horrek administrazioekin beste kanal batzuen bitartez harremanetan jartzean pertsonen artean izaten den egoera bat berresten du: emakumeak gizonak baino maizago arduratzen dira administrazio-kudeaketaz.

Izan ere, kopuru absolututan, administrazio elektronikoa erabiltzen duten emakume baino gizon gehiago zenbatu ditu 2019ko inkestak: 396.700 emakume eta 355.900 gizon; hots, 3,7 puntuko genero-arrail positiboa emakumeen alde.

Izatez, 2017an gainditu zen muga, baina 2019an handitu zen gizon eta emakume internauten arteko diferentzia absolutua: lehen urte horretan 6.400 emakume internauta gehiago zenbatu ziren gizonak baino, eta 2019an, 13.200 gehiago. Telefono mugikorra sartzeak eta administrazio elektronikokoaren informazioak eta izapideak euskarri horretara egokitzeak ere bilakaeraren zati bat azalduko lukete.


Joerak ematen duen zenbatespen lineala kontuan hartuta, 2003an -3 puntuko arraila atzeman zen (erdia, internautekin erkatuta), eta 2019an berdindu egin dira gizonetako internauten eta emakumetzako internauten arteko tasak. Beraz, nolabaiteko segurtasunez, eta familiei egindako inkestaren lagin- eta metodologia-aldaketak alde batera utzita, 2019a berdintasunaren urtea izan zen administrazio elektronikokoaren erabileran. Gainera, emakumeen artean hazkundeari eustea espero da.

G.12.a Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten 16-74 urte bitarteko biztanle internauten genero-arraia. Joerak. EAE. 2003-2019. E.P.%




Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.12.b 16-74 urte bitarteko internauten edo Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopuruaren diferentzia, sexuaren arabera. EAE. 2003-2019. Milak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.13. Azken 12 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, erakunde motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2019. %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Inkestaren beste ezaugarri esanguratsu bat herritarrekin harremanetan dagoen administrazio-mota da, azken urteetan nolabaiteko egonkortasunari eutsi baitio.

Esan daiteke 2019an e-Administrazioa erabiltzen duten bost pertsonatik lauk (% 79,3k) Eusko Jaurlaritzarekin eta haren inguru instituzionalarekin erabiltzen dutela;⁹ hau da, 597.000 pertsonak. Aurreko datuekin alderatuta, gehien hazi den erakundea izan da (12,4 puntu portzentual bere tasan).

Foru-aldundiek % 40 lortu dute (300.900 erabiltzaile). 2018. urtearekin alderatuta, kopuru hori 1,7 puntu portzentual igo da.

Toki-erakundeek % 21,3 lortu dute (160.100). 2018. urtean baino 6 puntu portzentual gutxiago.

Administrazio Zentralak e-Administrazioaren erabiltzaileen % 17,4 izan du (131.200 pertsona baino zertxobait gutxiago). Hau da, aurreko urtearekin alderatuta 10,3 puntu portzentual galdu ditu.

Europar Batasunak eta beste administrazio publiko batzuek % 6,8 lortu dute (51.400 pertsona). 2018. urtean baino 3,4 puntu portzentual gehiago.

Ezagutza-maila, erabilera-maiztasuna eta fideltasuna zenbatesteko, Eustaten inkestak bestelako informazio osagarria ere ematen du: inkestatutakoek bisitatu eta gogoratzen dituzten webguneak¹⁰.

⁹ Eusko Jaurlaritzan sartzen dira haren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, enpresa-sektore publikoa, partzuergoak, fundazioak eta abar.

¹⁰ IGIFen galdeketa, bisitatutako azken 5 webguneak biltzen dira, inkestatutako uneari dagokionez. 2015az geroztik, lehen hiruhilekoan, azken 3 hilabeteetan Internetera konektatu diren pertsonak erantzuten dute.

Alde batetik, azpimarratu behar da 2019an (edozein motatako webguneei)¹¹ egindako aipamen guztien % 8,1 edozein administrazioen atari publikoei dagozkiela; hortaz, 3 portzentaje-puntuko jaitsiera egon da 2018. urtearekin alderatuta.

Edozein espazio-eremutako atari publikoei egindako bost aipamenetik lau (% 79,3) EAEko administrazioei eta sektore publikoari dagozkie; beraz, 2018. urteko proportzioari eutsi zaio.

Oro har, EAEko administrazioen eta sektore publikoaren webguneei egindako aipamenak soilik aintzat hartuta, ikusten da % 66,3 EAEko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen webguneei dagozkiela. Kopuru horretatik, 27,6 puntu portzental euskadi.eus webguneari eta hari lotutako atariei dagozkie; 38,7, berriz, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei.


Foru-aldundien atariak EAEko sektore publiko osoko aipamenen % 13,2 eta udalerrikoen % 6 biltzen dituzte. Unibertsitate publikoak (EHUK) EAEko atari publikoen aipamenen % 13,2 jasotzen ditu, eta UNEDek % 1a.

2018. urtearekin alderatuta, 3,3 puntu portzental jaitsi dira Eusko Jaurlaritzaren atarien aipamenak, eta 7,2 igo erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen aipamenak.

Foru-aldundiek ere 2,1 puntu portzental egin dute behera, eta udalek 1,4 puntu. Gainerako erakunde publikoetan ez da aldaketa nabarmenik izan.


¹¹ Guztizko kopurutik ezabatu dira gizarte-sareei (Facebook, Twitter, YouTube), bilatzaileei (Google, Yahoo...) eta bat-bateko mezularitzari (WhatsApp) buruzko aipamenak, zeinak bildutako guztien % 51,9 izan baitira 2019an.

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten WEB gune publikoen aipamenak, administrazio-motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2019. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko WEB guneen aipamenak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2019. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

E-ADMINISTRAZIOKO TERMINOEN GLOSARIORAKO ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ESTADISTIKETARAKO ESTEKA

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN KONTZEPTUEN GLOSARIOA](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [ZERBITZU PUBLIKO ELEKTRONIKOEN GAINEKO ESTADISTIKA ESPE](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN BAROMETROA. BEA](#)

[EUSTAT.INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. FAMILIAK.IGIF](#)

[EUSTAT.INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA - ADMINISTRAZIOA. IGIA](#)

[EUSTAT.INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA - LEHEN SEKTOREA.IGILS](#)

[BESTE ITURRI BATZUK](#)

